BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

272

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 17koa, Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko sailburuordearena, 2012ko deialdian aurkeztutako osasun-arloko ikerketa-proiektuetarako dirulaguntzak emateko dena.

Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2012ko uztailaren 17ko Aginduaren bitartez (2012ko uztailaren 19ko EHAA), 2012. urtean hasi beharreko osasun-arloko ikerketa-proiektuetarako dirulaguntzak emateko deialdia egin zen.

Agindu horretako 14. artikuluan ezarrita dagoenez, laguntzak Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko sailburuordeak ebatziko ditu, Balorazio Batzordeak proposatuta. Ebazpena EHAAn argitaratuko da.

Aurkeztutako eskaerak ikusita, Balorazio Batzordearen proposamena aztertu eta aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean adierazten diren ikerketa-proiektuak finantzatzea.

Bigarrena.– II. eranskinean aipatzen diren eskabideak ezestea, han adierazitako arrazoiak direla-eta.

Hirugarrena.– 18. artikuluaren arabera, finantzatutako proiektuen segimenduko urteko memoriak Osasun eta Kontsumo Sailari aurkezteko epea ezartzea: bi eta hiru urteko iraupena duten proiektuen lehenengo urterako, 2013ko urriaren 18tik 31ra arte; eta, hiru urteko iraupena duten proiektuen bigarren urteko memoriarako, 2014ko urriaren 17tik 31ra arte.

Laugarrena.– Diruz lagundutako proiektuetan, 2. eta 3. urtealdiei dagokien finantziazioa ekitaldi horietarako dagoen aurrekontuetako baliabideen mende geratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Osasun eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratzen denetik aurrera, betiere urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak moldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 17a.

Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko sailburuordea,
OLGA ISABEL RIVERA HERNÁEZ.

I. ERANSKINA

2012KO DEIALDIRA AURKEZTU ETA FINANTZIAZIOA LORTU DUTEN IKERKETA PROIEKTUEN ZERRENDA

Zentro eskatzailea	Proiektuaren izena	Emandako zenbatekoa
Arabako eskualdea	Sakelako telefono bidezko mezuen eraginkortasuna hitzorduak gogorarazteko, eta arriskuaren indize prediktiboaren arabera sailkatutako diabetikoen prebentziozko jarduerak hobeto betetzeko eta haien kontrola lehen mailako arretan hobeto kontrolatzeko	24.800
Gasteizko Erizaintzako Eskola	Kimioterapia anbulatorio bidez artatutako pertsonek aurrera egiteko eta erresilentziarako dituzten ezaugarriak, bizi-kalitate eta egokitzapen hobearen adierazgarri diren aldetik	22.000
Osakidetza Osasun Laguntzako Zuzendaritza	Termografia-sistema ez-inbaditzaile bat garatzea eta ebaluatzea, loaren patologiaren prebentziorako, diagnostikorako eta tratamendurako. Eguneko lokumaren markagailu objektibo bat aurkitzea.	21.550
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Santiago egoitza	Erretinopatia diabetikoa duten gaixoen handiera koroideoaren azterketa, espektro-eremuko EDI-OCT bidez.	17.800
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	Triaje aurreratuaren ezarpena, lunbalgia larrialdietan artatzeko: emaitza klinikoen eta zerbitzuaren kalitatearen ebaluazioa	5.740
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	Benabarneko Terapia Zerbitzua, patologia anitzeko gaixo kronikoentzat	22.000
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	Aldaketak bilatzea Trastuzumab-arekiko erresistentziaren garapenarekin zerikusia duten miARN-ko profilean, bularreko minbizi Her2-positiboa duten gaixoengan.	87.200
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	Praktika Klinikoko Giden ezarpena, hodietako krisialdien ondorio negatiboak prebenitzeko, medikazio-akatsak prebenitzeko eta ospitalean dauden gaixoen gernu-infekzioa prebenitzeko	18.200
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Heterogeneotasuna tumore primarioaren eta besapeko gongoil-metastasi sinkronikoaren arteko markagailu biologikoen adierazpenean, hormona-hartzaile positiboko bularreko minbizian.	20.100
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Haurren tumoreen farmakogenetika. Binkristinaren eragina.	33.650
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Basofiloen Aktibatze Testaren balio-igarleari buruzko azterketa, alergia duten haurrek behi-esnearen proteinekiko tolerantziari dagokionez, eta Ahotiko Immunoterapiaren immunologia-mekanismoak, eraginkortasuna eta tolerantzia, haurrei eta esneari dagokionez.	58.151
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Tarteko kateterrak, aukera bikaina etxean antibioterapia emateko, infusio elektronikoko sistemekin.	18.630
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Kontrako emaitzen arrisku-faktoreak epe ertainera eta bularreko minbizia duten gaixoen eredu-igarleak sortzea.	77.710
Uribeko eskualdea	30 egunen buruan, berriro ospitalean ingresatzeko indize igarle baten balidazioa, eta ospitalean berriro ingresatu behar direnen kopurua eta ingresatuta egon ondorengo heriotza-tasa murrizteko erizaintzako esku-hartzearen eredu baten eraginkortasunari buruzko ebaluazioa.	26.000
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	Taldeko esku-hartzea psikosia detektatu berri duten gaixoekin eta kalamuaren kontsumoa	26.145
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	Ariketa fisikoaren eta elektrokardiogramaren telemonitorizazioaren segurtasunari eta eraginkortasunari buruzko ebaluazioa, bihotz-gaixotasunak dituzten eta bihotz-errehabilitazioa egiteko aukera handia duten gaixoek ariketa jakinak egin bitartean.	75.400
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Odol-osagaien transfusioei buruzko analisiak egitea eta transfusio horien egokitasuna hobetzea.	31.300
Galdakao-Usansolo Ospitalea	«Kontaktuei buruzko azterketa» egiteko hiru protokoloren analisi konparatiboa, Tuberkulina edo QuantiFERON-TB Gold In-Tube erabilita, tuberkulosi-infekzio sorraren diagnostikoa egiteko eta tratamendurako erreferentzia-proba gisa izateko.	12.000

Zentro eskatzailea	Proiektuaren izena	Emandako zenbatekoa
Galdakao-Usansolo Ospitalea	E-mintza komunikazio-sistema alternatibo handigarriaren ebaluazioa, iktus akutu baten ondoren adierazpen-afasia larria duten gaixoei dagokienez.	11.770
Galdakao-Usansolo Ospitalea	Dementzia duen gaixoa ospitalean ingresatzeak duen eragina.	32.200
Galdakao-Usansolo Ospitalea	Heste-garbiketarako bi protokoloren eraginkortasuna alderatzea, kapsula endoskopikoa erabilita egiteko azterketa.	21.100
Galdakao-Usansolo Ospitalea	Eboluzio txarren (heriotza eta ezbehar baskular larriak) faktore igarleak, kardiopatia iskemikoa aztertzen ari zaien gaixoei dagokienez. Ahalegin-probarako ekokardiografiaren pronostiko-balioa.	22.000
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Dementzia frontotenporala eta Genetika: next generation sequencing sistema aplikatzea, familia-motak zehazteko. Azterketa ebolutibo klinikoa, neuropsikologikoa eta jokabidearena.	60.760
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Ausazko azterketa kliniko pilotua, plaketaz aberatsa den plasma erabiliz tenotomiaren segurtasun eta eraginkortasun potentzialak baloratzeko, epikondilitis kronikoari dagokionez.	11.690
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	ARNaren analisia, BRCA1 eta BRCA2 geneetako splicing-aren asaldurak aurkitzeko, familian lehendik bular edo obarioetako minbizia izan duten eta gaixoaren patologia ulertzeko aurrejoera-geneetan mutaziorik gertatu ez zaien gaixoei dagokienez.	56.277
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	Risperidona/paliperidona tratamenduari aripiprazol gehituko dioten gaixoen profil dopaminergikoa. Hormona- eta metabolismo-parametroekiko ondorioa.	41.490
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	Ausazko proba klinikoa, psikosia diagnostikatu berri duten pertsonak berriz gaixotzea prebenitzeko.	18.000
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	Esku-hartze goiztiarreko programa baten eragina, gaixotasunak iraun bitarteko psikosiari, urritasunaren murrizketari eta zerikusia duten gastuen murrizketari dagokionez.	19.800
Ikerkuntza Unitatea, Bizkaiko Lehen Mailako Arreta	Ariketa fisikoa, tumore-prozesuengatik tratamenduan dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko: Ariketa fisikoa eta Minbiziari buruzko II. azterlana	24.600
San Juan de Dios Ospitalea	Tratamendu paliatiboa duten gaixoen diagnostikoa, tratamendua eta terapia-laguntzaren egokitasuna.	15.000
Osatek	Presioagatiko ultzeraren eta egoitza geriatrikoetako nutrizio-egoeraren tele-kontrolerako proiektu pilotu bat abian jartzea.	19.770
BioGUNE IKZ	Biomarkagailuak eta jomuga terapeutikoak identifikatzea prostatako minbizian, murinoen eta gizakien analisi konparatuak eginez.	27.600
UPV/EHU	Eboluzioaren eredu iragarleak garatzea eta balidatzea, gaixotasun kronikoak dituzten gaixoei dagokienez: alderdi metodologikoak	46.450
Matia Gerontologia Institutua - Fundazioa	Osasuntsu zahartzea Euskadin: Adineko pertsonen osasunean erabakigarriak diren alderdien analisia, taldean esku-hartzeko programak garatzeko.	26.000

II. ERANSKINA

2012ko DEIALDIRA AURKEZTU, ETA EZETSI DIREN IKERKETA PROIEKTUEN ZERRENDA

Biodonostia Institutua elkartea	Azido ursodeoxikolikoa: gibeleko eritasun polikistikoen tratamendurako estrategia berria
Biodonostia Institutua elkartea	Aurrealdeko burusoiltasun fibrosantearen eta ile-liken lauaren gene-adierazpenaren ereduari buruzko azterketa konparatiboa, mikroarray sistemaren bidez
Biodonostia Institutua elkartea	MikroRNAen biomarkagailu berrien balidazioa eta microRNAen lotuneak, gradu handira aldatzeko arriskuko linfoma folikularra duten gaixoei dagokienez.
Biodonostia Institutua elkartea	Gliobastomaren bereizgarriak eta pronostiko-markagailu berriak identifikatzea
Biodonostia Institutua elkartea	Pigmentu-retinosia Gipuzkoa: molekulen bereizgarriak eta terapiari ekitea, murinoen ereduetako mikroRNA-mailen modulazioa oinarri hartuta
Biodonostia Institutua elkartea	Anti-KIR4.1 auto-antigorputza, esklerosi anizkoitzeko biomarkagailu baita
BioGUNE IKZ	Progresioaren pronostiko-markagailuen balorazioa, kartzinoma hepatozelularra duten gaixoei dagokienez, eta haien erabilera tratamendu indibiduala ezartzeko.
Bilboko eskualdea	TELBIL+T
Gipuzkoa eskualdea	Software elkarreragilea erabiltzearen ondorioa, linfedema sekundariotik bularreko minbizirako gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko
Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Immigrazioa eta haurren aho-hortzetako osasuna: premia berriak
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	Garun-trauma duten pertsonen askaera kognitiboen eta emozionalen luzetarako azterketa.
Donostia O. – Ikerkuntzako Unitatea	Ausazko proba kliniko irekia, montelukast eta glukokortikoide inhalagailuaren tratamenduarekiko erantzuna iragartzeko, sibilantzia errepikariak dituzten 3 urte baino gutxiagoko gaixoei dagokienez. SIREC azterketa
Mendaroko ospitalea mendebaldeko eskualdea	Zelula aitzindarietatik eratorritako konstruktu zelularren erabilera terapeutikoa, murinoen ereduko sorbalda-biratzaileen zorroaren tendoi-urradura kronikoetarako
Galdakao-Usansolo Ospitalea	Tele-errehabilitazio birtuala, oreka-asaldurako Parkinsonen gaixotasunean
Galdakao-Usansolo Ospitalea	Galdetegi bat garatzea eta balidatzea, sintomak detektatzeko eta tratamendu antierretrobiralarekiko tolerantzia neurtzeko.
Galdakao-Usansolo Ospitalea	CD4 linfozitoen galera, iraupen luzeko gogobeteko tratamendu antierretobirala hartzen duten gaixoen azpimultzo bati dagokionez.
Galdakao-Usansolo Ospitalea	Elikadura-portaerako arazoak dituzten gaixoen eta haien zaintzaileen epe luzerako bizi-kalitatearen eboluzioa (5-10 urte)
Galdakao-Usansolo Ospitalea	Iktus iskemiko baten ondorengo bizi-kalitatearen aldaketari, heriotzari eta berriro ingresatzeari buruzko eredu iragarleak sortzea

Arabako Unibertsitate Ospitalea, Santiago egoitza	Kalitatearen kudeaketarako sistema baten aplikazioaren ebaluazioa Euskadiko Ikerketa Klinikoko Batzorde Etikoan
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	Bihotz-errehabilitazioa, ospitaletik kanpo versus ospitalean. Kontuaren eta eraginkortasunaren azterketa
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	Giza papiloma birusaren arrisku-faktoreak
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Proteomikaren aplikazioa eta zelula- eta zitozina-azterketak, septizemia larria eta sindrome hemofagozitikoak dituzten gaixoen hutsegite multiorganikoan zerikusia duten ostalariaren immunologia-faktoreak identifikatzeko.
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Likido endometrialaren markagailu proteomikoak, esterilitatearen sorreran
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Zelula-terapia aurreratuko produktu baten garapen aurreklinikoa, linbar-gutxiegitasun kasuetan aplikatzeko
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Beheko gorputz-atalen iskemia kritikoaren tratamendua, medikuntza birsortzailearen bidez
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Toxikologia pediatrikoaren zaintzarako munduko sistema larrialdietan-orokorrean; pediatric emergency poisoning surveillance system
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	EVALAIDE: Aide-GTP teknologiaren egungo eta hurrengo bertsioen ebaluazioa, gida kliniko informatizatuen berri emateko eta kudeatzeko euskarri baita.
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	«2Ts PROIEKTUA = 2 teknologia, 2 doktorego-tesi. Erresonantzia magnetikoaren eta neurokirurgiako barne operazioko TAC-aren argibide klinikoen analisia: aplikazioak, segurtasuna eta diagnostikoaren eta terapiaren efizientzia».
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	MikroRNAk, zahartzaroan gako-geneen adierazpenaren erregulatzaile gisa
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Arrisku estandarreko (PNET5) eta arrisku handiko meduloblastoma pediatrikoetan, diagnostikoaren eta tratamenduaren estratifikazioari biologia molekularra aplikatu ondorengo azterketa ebolutiboa.
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Kolangiokartzinoma: estrategia terapeutiko berria.
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Erradiazio ez-ionizatzaileko eremu elektromagnetikoetan jartzeagatiko ezaugarriak, Gipuzkoa INMA taldeko haurren jarraipenean
Donostia Unibertsitate Ospitalea	PHaren eta/edo laktatoaren etenik gabeko monitorizazioa, animalia-kalotan ezar daitekeen mikrosentsore baten bidez
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Estrategia terapeutikoen garapen aurreklinikoa, kalpaina3 gabeziagatiko gerri-distrofiarako
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Terapia neuroerrehabilitatzaile baten garapena, brain machine interface (bmi) izeneko interfaze bat oinarri hartuta, iktusa dela-eta mugitzeko arazo larriak dituzten gaixoentzat
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Hazkunde epidermikoko faktore-hartzailearen inhibitzaileen lurrazal-toxikotasuna, eta gaixoaren profil farmakogenetikoarekiko duen lotura
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Ikusmen binokularra lehenetratzearen eraginari buruzko ausazko proba kliniko itsua, ikusmen/ortoptiko terapiaren bidez; eta prismazioa, hartutako andotropiaren ebakuntzaren ondorengo pronostikoan

Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	Aldakako edo belauneko artroplastia totala egin dioten gaixoen jarraipena egiteko zentro anitzen proiektua. Emaitzak epe luzera.
Ikerketa Psikiatrikoen Institutua	Eskizofrenia-nahasmendua edo nahasmendu eskizoafektiboa duten gaixoen zaintzaileen gainkarga prebenitzeko edo murrizteko, esku-hartze psikosozialeko programa baten eraginkortasunari buruzko azterketa (EDUCA-III)
O+berri	Euskadin depresio-eritasuna dutenen tratamendu integratua hobetzeko Elkarlaneko Proiektuaren 2. fasea.
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	Sexua kontuan hartuta, adierazleen atzera begirako azterketa, luzetarakoa (1990-2011), deskribatzailea eta konparatiboa.
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	Leheneratzeari buruzko ebaluazioa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean buruko nahasmendu larriak dituzten pertsonak artatu ondoren: DREEM-Bizkaia proiektua
Osakidetzako Zerbitzu Zentralak.	Ospitalizazioen faktore erabakigarriak, bihotz-gutxiegitasun kongestiboaren eta EPOC eritasunaren ondorioz eragotzi zitezkeen ospitalizazioenak. Behaketa bidezko aurrera begirako azterketa
Osakidetzako Zerbitzu Zentralak.	Euskadiko Ikerketa Klinikoko Batzorde Etikoak baimendutako ikerketa-proiektuen jarraipena egiteko planaren ebaluazioa.
Osakidetzako Larrialdi Unitatea	Alderdi epidemiologikoak, aldakortasuna eta biziraupena, Espainiako larrialdi-zerbitzuetakoek Ospitaletik kanpoko Bihotz Gelditzeak artatzean (EAEko azpiproiektua)
Unidad Investigación Atención Primaria Bizkaia	Bizkaiko lurralde historikoari dagokionez, 2012. urtetik 2014. urtera bitartean antikoagulante berrien erabilera egokiari buruzko ebaluazioa
Ikerkuntza Unitatea, Bizkaiko Lehen Mailako Arreta	Ariketa fisikoa eta errendimendu kognitiboa Alzheimerren gaixotasunean. EFA azterketa
EHU. Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa	Premiak eta urritasunak dituzten pertsonei laguntzeko sistema baten diseinua, blokeo-egoerak detektatzeko, giza emozioen analisia oinarri hartuta, eta fisiologia-seinaleen sentsoreak dituzten gailu eramangarriak erabilita.
EHU. Farmazia Fakultatea	Ariketa fisikoa egiteko programa batek gehiegizko pisua duten haurren gibel-gantzari eragiten dizkion ondorioak
EHU. Ingeniaritza Fakultatea	Irtenbide teknologikoa kolonoskopiaren kalitatearen jarraipena egiteko eta kolon-hondoesteko minbiziaren baheketa egite aldera egokitzeko.
EHU. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Kanabisaren eratorrien bidez erregulatutako bideen eragina, obozitoak in vitro hazteko: Bitartekoak hobetzeko
EHU. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Mugimendu-nahasmenduetan Gongoil Basalen nukleoek duten neurona-jardueraren azterketa
EHU. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Adenosina bidez adierazteko mekanismoak eta haien eragina esklerosi anizkoitzean.
EHU. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Zelula ama neoplasikoen eta mikroingurunearen azterketa proteomikoa eta epigenetikoa.

Zentro askotako proiektutzat ez hartzeagatik (6.1 artikulua)

Arabako eskualdea	Lehen mailako eta komunitateko arretako zerbitzuan osasuna sustatzea: EBO (Egizu Bizitza Osasuntsua) ikerketa-ekintza programaren III. fasea Osakidetzari helaraztearen eraginkortasuna.
Gipuzkoako eskualdea Mendebaldea	Lehen mailako eta komunitateko arretako zerbitzuan osasuna sustatzea: EBO (Egizu Bizitza Osasuntsua) ikerketa-ekintza programaren III. fasea Osakidetzari helaraztearen eraginkortasuna.
Barrualdeko eskualdea	Lehen mailako eta komunitateko arretako zerbitzuan osasuna sustatzea: EBO (Egizu Bizitza Osasuntsua) ikerketa-ekintza programaren III. fasea Osakidetzari helaraztearen eraginkortasuna.
Uribeko eskualdea	Lehen mailako eta komunitateko arretako zerbitzuan osasuna sustatzea: EBO (Egizu Bizitza Osasuntsua) ikerketa-ekintza programaren III. fasea Osakidetzari helaraztearen eraginkortasuna.
Mendaroko Ospitalea	Lehen mailako eta komunitateko arretako zerbitzuan osasuna sustatzea: EBO (Egizu Bizitza Osasuntsua) ikerketa-ekintza programaren III. fasea Osakidetzari helaraztearen eraginkortasuna.
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Telefono bidezko tarteko kontsultarako proba kliniko pilotua, GIB bidezko infekzioa duten eta behar bezalako kontrol birologikoko tratamendu antierretrobirala duten gaixoekin.
Zarautz-Orio-Aia (Lehen Mailako Arretako Unitatea)	Kronoterapia aplikatzearen eraginkortasunari buruzko analisia, kontrol zaileko arteria-hipertentsioa duten gaixoei dagokienez
Ikerkuntza Unitatea, Bizkaiko Lehen Mailako Arreta	Lehen mailako eta komunitateko arretako zerbitzuan osasuna sustatzea: EBO (Egizu Bizitza Osasuntsua) ikerketa-ekintza programaren III. fasea Osakidetzari helaraztearen eraginkortasuna.
Ikerkuntza Unitatea, Bizkaiko Lehen Mailako Arreta	Egizu Bizitza Osasuntsua (EBO) ikerketa-ekintza programak oso epe luzean izango duen eraginkortasun potentziala: azterketa pilotua (II. fasean)
Ikerkuntza Unitatea, Bizkaiko Lehen Mailako Arreta	Lehen mailako eta komunitateko arretako zerbitzuan osasuna sustatzea: EBO (Egizu Bizitza Osasuntsua) ikerketa-ekintza programaren III. fasea Osakidetzari helaraztearen eraginkortasuna.

Ez direlako ikerketa-proiektutzat hartu, baizik osasun-sistema batean ezartzeko fasetzat.

Donostia Unibertsitate Ospitalea	Telefono bidezko tarteko kontsultarako proba kliniko pilotua, GIB bidezko infekzioa duten eta behar bezalako kontrol birologikoko tratamendu antierretrobirala duten gaixoekin
Zarautz-Orio-Aia (Lehen Mailako Arretako Unitatea)	Kronoterapia aplikatzearen eraginkortasunari buruzko analisia, kontrol zaileko arteria-hipertentsioa duten gaixoei dagokienez

Diziplina anitzeko proiektuak ez direlako (6.1 artikulua).

Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	Hormona-nahasmenduekin zerikusia duen edo ez duen E motako brakidaktilia dutenen ezaugarriak: tratamendu klinikoa, genetikoa eta erradiologikoa

Interesunak berak berariaz uko egiteagatik.

Gros auzoko anbulatorioa	Tele-kontroleko programa bat abian jartzea, antikoagulanteak hartzen dituzten gaixoen autokontroleko proiektu batekiko
Biodonostia Institutua elkartea	GSK-3b izenekoen eta NFAT transkripzio-faktoreen inhibizioa, jomuga terapeutikoak diren aldetik pankreako minbizian
Biodonostia Institutua elkartea	Baccharis articulata, Rosmarinus officinalis y Plantago major, urdaileko minbiziaren tratamenduan
Biodonostia Institutua elkartea	Desmodium adscendens landarea gibel-babesle gisa, hepatitis akutuko kasuetan
Auzolan Senior	Iktusa edukitzeko arriskuaren biomarkagailuak bilatzea, estenosia duten gaixoengan
Beraungo osasun-zentroa	Obesitatea, lehendabizi aztertu, bero tratatu
Pasai San Pedroko osasun-zentroa	Biriketako adenokartzinomaren diagnostiko aurreklinikoak eta pronostikoak egiteko biomarkagailu berriak identifikatzea, ardi-eredu batean
Galdakaoko Haur eta Gazteentzako Osasun Mentaleko Zentroa	Esku-hartze goiztiarra, atxikimendua oinarri hartuta
Arabako eskualdea	Eskuko telefono bidezko mezuak bidalita indartzeko programa baten ebaluazioa, tabakoarekiko mendekotasuna gainditzeko programak sendotzeko lehen arretan
Arabako eskualdea	Bizitzaren amaierako zaintzaren ibilbideak
Ezkerraldea-Enkarterriak eskualdeko Osakidetza	Erresonantzia Magnetiko bidezko Perfusioaren azterketa, suszeptibilitate ponderatuko teknikak (T2) erabilita, minbiziaren diagnostikoa eta pronostikoa egiteko markagailu berri gisa kontrastea eman ondoren. rCBV
Barrualdeko eskualdea	Osasuna sustatzeko eta gizartearen osasun-ezaugarriak aldatzeko esku-hartze komunitarioko esperientzia baten azterketa: Familia-aholkuak eta adituen aholkuak Salvadorren
Osasun eta Kontsumo Saila	Bizkaiko barnealdeko eskualdean, gripearen aurkako txertoa arriskuko herritar gehiagok har dezan esku-hartzea
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	Diziplina anitzeko eta zentro anitzeko azterketa, proteomika bidezko markagailu biologikoak bilatzeko, giltzurruneko erasana eta eritema-lupus sistemikoa diagnostikatu dioten gaixoengan.
Galdakao-Usansolo Ospitalea	Esku-hartze psikohezitzaileko programa, fibromialgia duten pertsonen senideentzat. Osasunarekin zerikusia duen bizi-kalitatearen ebaluazioa, eta fibromialgia duen pertsonaren senideak hautematen duen karga.
Galdakao-Usansolo Ospitalea	NUPALAR AZTERKETA: Laringektomia egina duten pertsonen nutrizioari buruzko azterketa. Kirurgia egin aurretik nutrizioaren alorreko esku-hartzearen eraginkortasuna
Galdakao-Usansolo Ospitalea	Fibromialgiaren inguruko depresioari aurre egiteko bi estrategiaren alderaketa: ausazko proba klinikoa
Galdakao-Usansolo Ospitalea	Osasun-zerbitzuen ebaluazioa, bihotz-gutxiegitasuna duten pertsonei dagokienez. ESS-IC proiektua.
Arabako Ospitale Psikiatrikoa	Eskizofrenian entrenamendu kognitiboa (kognizio soziala eta neurokognizioa) egiteko teknika baten azterketa esperimentala, fikziozko filmak oinarri hartuta.

Santa Marina Ospitalea	Antolaketa-berrikuntza: azpiakutukoentzako ospitalearen eta geriatria-egoitzen arteko koordinazio- eta integrazio-eredu baten eragina
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Santiago egoitza	Garuneko zahartze patologikoa
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Santiago egoitza	Antipsikotikoekiko lotura eta tratamendu psikosoziala, lehendabiziko gertakari psikotikoetan. Eboluzio kliniko, funtzional eta kognitiboa, eta bigarren gertakari psikotikoa agertzearekin duen zerikusia
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Santiago egoitza	Adineko pertsonei benzodiazepinak agintzea egokia den baloratzeko azterketa: erabileraren egokitasuna, kontrako gertakariak, elkarrekintzak eta eragin ekonomikoak
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	Pseudohipoparatiroidismoa eragiten duten nahasmendu epigenetikoak sorrarazten dituzten kausa genetiko berriak identifikatzea
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	Sudurreko kanula bidezko fluxu handiko oxigenoterapiak arnasketa-funtzioan duen eragina. Hainbat gaixo-motetan izan dezakeen erabilgarritasunari buruzko analisia
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	CHBk eragindako hepatitis kronikoa duten gaixoen funtzio kognitiboetan duen eragina tratamendu konbinatuak (pegInterferon-alfa + ribavirina, proteasen inhibitzailekin edo gabe).
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	Tronbosi osteko biriketako hipertentsioa igartzeko luzetarako azterketa, Biriketako Enbolismoari buruzko datu klinikoekin zerikusia duten biobankuen sare bat sortuta (OSIRIS azterketa)
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	Arrisku kardiobaskularraren ebaluazioa, orkatila/besoaren indizea kontuan hartuta eta karotidearen ekografia eginda GIB infekzioa duten gaixoei
Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu egoitza	Mutazio patologikoak bilatzea, paragongoil sindromerako joera duten geneetan eta feokromozitoma hereditarioen geneetan, Euskal Autonomia Erkidegoan noizbehinka itxuraz tumoreak izaten dituzten gaixoengan.
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	Medikuaren eta gaixoaren arteko harremana, eta erreuma-artritisa edo depresioa diagnostikatu dioten eta ospitalean dauden zein anbulatoriora jo duten gaixoek tratamendua betetzen duten jakitea
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	Disfuntzio sexuala, eta eskizofrenia eta espektroko nahasmendua duten gaixoek tratamendu antipsikotikoa betetzen duten jakitea.
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Heldu aurrekoetan arginina eta kreatina emateari buruzko azterketa, haren neurogarapenari eta nutrizioari dagokionez
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Metabolomika, neuropatia optiko eskemikoan, aurrealdekoa, eta ez arteritikoan
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Biriketako minbizi ez-mikrozitikoa diagnostikatzeko bitartekoa garatzea, miRNAen profilak oinarri hartuta.
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	ADNa lehengoratzeko sistemak, kolon-hondoesteko minbizia duten gaixoei emandako kimioterapia eta/edo erradioterapia bidezko tratamenduak eragindako zelula-kaltearen faktore erabakigarriak diren aldetik
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Garuneko tumoreak garatzeko genetikak duen suszeptibilitateari buruzko azterketa, Euskal Autonomia Erkidegoko familietan gailentzen diren sindrome hereditarioei dagokienez
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Melanomaren suszeptibilitateari eta pronostikoari buruzko markagailu molekular berrien balidazioa
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Minbiziaren tratamendurako nanohidrogel «adimendunak» aplikatzea.

Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Plaketez aberatsa den plasmako injekzioak artikulazioetan versus azido hialuronikoko injekzioak, belauneko artrosi «goiztiarra»·tratazeko
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	In vivo eredu esperimentala, biofilmaren sorrera, inkubazio eta hazkundearen azterketa eta analisia egiteko
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Tumore-zeluletan molekulek adierazitako erantzun immunitarioa modulatzea
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Endarterektomiaren osteko hiperafluxuaren sindromea:aldagai iragarleak aztertzea karotida-estenosia duten pazienteetan
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Jaioberrientzat surfaktantea lainoztatzeko gailu bat garatzea, prototipoa egitea eta proba aurreklinikoa
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Denosumaben eraginkortasuna eta segurtasuna Ibandronatoarekin alderatuta, bularreko minbizi goiztiarra duten pertsonetan aromatasaren inhibitzaileek dakarten hezur-galerarako. DICAMAP azterketa
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Kolon-minbizia diagnostikatuta duten gaixoetan metaloproteasen eta kimiokininen adierazpenaren pronostiko-balioaren azterketa, II eta III erauzia aldietan
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Mina eta disautonomia Parkinson gaixotasunean. Zuntz meheen neuropatiaren aldeko argudioak
Gurutzetako unibertsitate-ospitalea	Zelula-terapia garatzen hastea hirschsprung-en gaixotasuna duten haurretan
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Pronostikorako faktoreak, heldu gazteen aldakako patologian
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Pronostikorako faktoreak, heldu gazteen aldakako patologian
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Giltzadura-birsorkuntza protesi biologikoen bidez. Esperimentazio-animalietan eragitea eta ezartzea
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Uzkian zeharreko Doppler ekografia sistema robotikoa diseinatzea eta ezartzea arteriak gutxiago hondatzeko Prostatektomia Erradikal Laparoskopikoan
Donostia Unibertsitate Ospitalea	2 A motako gerri-distrofiaren eramaile sintomatikoen identifikazio eta karakterizazio kliniko-erradiologikoa: kalpaina3 gabeziagatiko distrofiaren fisiopatologia zertan den hobeto ulertzea
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Malkoen azterketa proteomikoa: bilaketa prospektiboa gaixotasun neurologikoetan biomarkatzaileak aurkitzeko
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Stent farmakoaktibo bat txertatu ondoreneko lehenengo urtean antiagregazio bikoitza hobeto itsasteko ebakuntzaren ikerketa
Donostia Unibertsitate Ospitalea	PASE: azterketa sistematikoetan egokiak diren Ikasketen Aukeraketa Automatizatzeko Programa
Donostia Unibertsitate Ospitalea	MAPAC proiektua (Asistentzia-jarduna eta jardun klinikoa hobeto egokitzeko proiektua)
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Organismoko barrunbeetako leku jakinetara (artikulazioak eta begi-globoa) bideratutako terapia-sistemaren garapena, nanoteknologia eta magnetismoa baliatuz
Ikerkuntza Sanitarioetako Eusko Institutua	Gailu posizional dardarakor baten balidazioa, loaldiko buxadura-apnearen sindromea duten pazienteak tratatzeko

Neiker-Derio	Metodo molekular berritzaileak eta izaera anitzekoak garatzea eta aplikatzea, interes sanitarioko mikrobakterioak hautemateko eta identifikatzeko
O+berri	Biriketako gaixotasun oztopatzaile kronikoa duten Arabako pazienteen arretaren kalitatea hobetzeko lankidetza-proiektu
Osatek	Konektibitate Funtzionalaren Azterketa Esklerosi Tuberosoan
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	Lehen mailako sintomatologia negatibo iraunkorrean reboxetina gehitzearen eraginkortasuna, psikosi ez-afektiboaren lehen aldietan.
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	Terapia kognitibo konduktualaren terapiaren eraginkortasuna, eskizofreniaren sintoma negatiboak txikitzeari dagokionez
Ikerkuntza Unitatea, Bizkaiko Lehen Mailako Arreta	ema.Q: Amatasun Hezkuntza berri bat modelatzea, ezartzea eta aztertzea
Ikerkuntza Unitatea, Bizkaiko Lehen Mailako Arreta	EAEko 2 motako diabetesa duten pazienteen gertaera kardiobaskularren lehen mailako prebentzioan estatinen edo/eta antiagregazioaren bidezko tratamenduaren eraginkortasuna aztertzea.
EHU. Farmazia Fakultatea	Hipotiroidismoan arritmia kardiakoak sortzeko hipofisi guruinaren papera
EHU. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	MikroRNAen adierazpen-patroien azterketa, ahozko asaldura potentzialki gaiztoak dituzten pazienteetan
EHU. Psikologia Fakultatea	Hizkuntzaren ezaugarriak eta analisi ebolutiboa, 1 motako Distrofia Miotonikoan (DM1)

Balorazio Batzordeak egindako ebaluazioan, finantzagarri izateko gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik.